

Kaixo, lagunak:

Zer moduz zaudete? Gustura?

Hala izatea espero dut.

Ni lasai ederrean nabil. Konturatu zarete, ezta? Gero eta eguzki ordu gutxiago daukazue kalean ibiltzeko. Beranduago argitzen du eguna, eta lehenago iluntzen hasten da. Beno, horrela, agian, gehiagotan izango duzue nire berri, oraingoan bezala.

Gaur beste gai polit batekin hasiko gara: Beñat eta Iratiren etxea nolakoa den ikusiko dugu eta zein altzari dauden. Horren ostean, zuek nahi duzuen moduko etxea egiteko aukera izango duzue. Ea polita ateratzen zaizuen!

E!, jolasak ere ez ditut ahaztu. Jolas egingo duzue, bai! Baina, lan pixka bat ere ekarri dizueta, kolorez betetako fitxa batzuk.

Neska-mutilak, ondo-ondo pasatu!

Lorentxo

